



## 1. Gogoetan

Irakurketa eta honen sustapenaren inguruan informazio asko aurkitu daiteke honetan, horrelako baliabide batzuek jarri nahi ditugu zuen esku. Gehiago gure webgunean ere [Lotuneak](#) atalean.

[SOL](#) Servicio de Orientación de Lectura Infantil y Juvenil:

[PLEC](#) Proyecto de Lectura pra Centros Escolares:

[ACCES](#) Actions Culturelles contre exclusions et ségrégations:

[DARABUC](#) HGL bloga:

*nobedadeak*

[GRETEL](#) Grup de Recerca de LIJ i Eucucació Litèraria UAB:

*Guraso eta bitartekarienezako aholkuak*


*Eskola liburutegietarako materiala*

*Haur txiki txikiekin irakurketa lantzeko*

*HGL eta ilustrazioari buruzko*

*HGL ikerketa akademikoa*

## 2. Egitasmoa martxan



Aitaxok liburua erakutsi...



...eta umeak gozatu.

Gazteegi ez horrelako jolasetarako!

(8 hilabeteko haurtxoa aitarekin liburu bat ikusten. Donostia 2011)

## 3. Irakurleak egiten

“Lehen ‘Abrite portas, klis-klas!’ esan, eta lapurren haitzuloko atea irekitzen zen, iraganeko altxor preziatuak. Orain ‘Abrite portas, klis-klas!’ esan, eta etorkizuneko altxorrek zabalduko zaizkizu, euskaraz nahiz munduko edozein hizkuntzatan sortutako liburuak: **KLIS-KLASIKOAK!**”

Lelo horrekin zabaltzen dira [Klis-klasikoak sortako](#) lehen liburuak eta lelo bera izango dute aurrerantzean Klis-klasikoak sorta osatuko duten liburuek ere. Testuak aurreratzen duen bezala, haur eta gazte literaturako lan klasikoetarako sarbidea izan nahi du Klis-klasikoak bildumak; hots, 4 eta 16 urte bitarteko irakurleei (ez haiei bakarrik, baina bereziki haiei) euskarazko literatur obra kanonikoak eskueran jartzea zein beste hizkuntzetako klasikoen itzulpen egokiak eskaintzea du xede nagusi.

Ez galdu liburu eder hauetaz gozatzeko aukera!

## 4. Ongi pasatzeko!

Opor aldi honetan, [Kveta Pacovska](#) ilustratzaile txekiarraren *Loreen errege txikia* liburuaren irakurketaz gozatzeko dugu, denboraz lasaiago gabilta eta. Narrazioa italieraz dator, baina irudiek maisuki ematen digute istorioaren berri.